

ANDRAMAIXAK

Ondarroako jaiak 2012





**Ondarroako Udalaren eta
Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzaren
publikazio berezia**

AZALA →

Andoni Garcia Alkorta

TESTUAK →

Ondarroako Jai Batzordea

Ondarroako Historia Zaleak · OHZ

Imanol Oruamazaga Baseta

Lore Bengoetxea Ibazeta

DISEINUA ETA MAKETAZIOA →

Nekane Akarregi Amutxastegi

PUBLIZITATEA →

Maribi Fernandez Zabala · BIDERA

ARGAZKIAK →

Juan Fernandez Eiguren


Lore Bengoetxea Ibazeta



**ONDARROAKO
UDALA**

**LEA-ARTIBAI ETA
MUTRIKUKO**

hitza





Ondarrutarrok agur!

Uda bete-betean, urte hasiera atzo zelakoan gainean dauzkagu aurten andramaixak. Herriko jaiak alaitasunez, musikaz eta dantzaz betetako egunak izaten dira, urtean sekula baino hobeto pasatzeko egunak. Ia, aurten, Leokadi Kortxeletik gurera datorrenean ez duen igartzen ez direla sasoirik aproposenak. Laga ditzagun, bada, albo batera eguneroko ardurak eta ezintasunak, disfrutatu, marmitako gozo-gozoa jan eta indarrak berritu aurrera egiteko. Animo!

Egitaraua irakurtzen duzuenean konturatuko zarete denetik daukagula ume, gazte zein helduentzat: dantzak, kontzertuak eta hainbeste jolas. Parte hartzeko aukerak, nahi beste. Aurten, karpaa ere badaukagu zerura begira egoteko preminarik ez edukitzeke. Aprobetxa dezagun!

Hori guztia prestatzen behar eta behar aritu dira Jai Batzordeko ki-deak. Zorionak eta eskerrik asko egin duzuen lan guztiagatik!

Bizi jaiak etxekoekin jolasean, lagun artean parranda sanoan, gure ondoan faltan botatzen ditugunak gure bihotzetan beti, beti euskaraz, errespetuan eta etorkizunari ilusioz begira. Ondo hartu gurera kanpotik datozenak, erakutsi gure herri ederra eta erakutsi gure ohiturak; ziur etorriko direla berriro!

Horixe da opa eta eskatzen dizuedana.

Bizi topera andramaixak. Eta ondo-ondo pasa.

Gora Ondarroa!

**Argia
Ituarte Arkotxa**
Ondarroako Alkatea

Kaixo Ondarrutarrok eta Ondarrure etorri zazen guztixoi!

Pasa da urtebete ixte konturatu baik, eta hamen datoz Andramaixak atzea be!

Iez baiño 20.000 euro gehixa aurrikusi genduzen jaixetako, eta horrei esker, karpi alokatiaz gaiñ, ikuskizun gehixa eta erakargarrixa antolatzeko aukeri euki dou: Errusiko Ballet Nazionala, Dr.Deseo, Patxi Saiz, Petti... Herriko taldik eta txosna batzordik urtero urtero eskaintzen doskuzen emanaldixa be hor eongo di, eta pentsaten dou herriitar guztixok kontutan hartzen gaituzten egitarau osatu douela: nausixa, gaztik eta umik, andrak eta gixonak, danok eukiko dou geure leku andramaixetan.

Halan da be, ez giñake zintzuk ixango Jai Batzordin funtzionamentun ingurun sortzen gazkuzen kezak ez bagenduz azalduko. Gure helburu Jai Batzorde iraixe, parte hartzailli eta dinamiku sortzi bada be, ondiokan bide luzi geatzen gazkule aitortu bihir. Jai Batzordi, egitarau osatzeko eta koordinatete guni ixtiaz gain, beste zeozer be ixan bihi'litxake: alde batetik, zelaio jaixak nahi douzen eztabai-

datzeko leku, eta neurri berin, talde bakoitxa eitten doittuzen ekintzaz aparte, amankomunin garatu bihir dizen ekimenen motorra: aurrekontuk eskatzeko, proposamenen eztabaidatzeko, kartelak prestatete eta peateko, hutsunak aztertete eta betetete, haxe agurrau idazteko... Animo ze bidi oiñez dunak eitten dau.

Esandakuk esanda, ez da on muxingetako astirik. Turubi eta Leokadi esnatzen hasitte daz, eta poz-pozik gaiñea jai-xan aurretik sorpresa onak ailla gazkuzelako, behingoz, Madril aldetik. Zoixonak eta ongi etorri, azken urtiotan Leokadin uxuk entzutete auke-

raik ez dozuenoi euki; eta ondiokan falta zazenoi, eutsi gogor, ze uste baiño lehena ailla-ko da egune, erbestetik edo itzalpetik itzuli eta abestuko douena danok batea, Leokadin ereserxike: ta tara tara tataratata...

Ondo pasa jaixak, ondo pentsa zetan gasta eta batez be, ez billatu alperriko folloirik: bakin dana bakin laga, eta akorda: ligati ez da akosati!

**Gora Ondarru eta
aupa ondarrutarrok.
Gora andramaixak!**

Ondarroako
Jai Batzordea



Eta zuk Andramaixetan, ze ein bizu?



PUNTUAK

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko asmoz eta andramaixak giro paregabean gozatzeko gogoz, parte-hartze sarea jarriko dugu martxan. Puntu gehien lortzen dituen koadrilak 500 euroko saria irabaziko du.

Soilik parte-hartzea baloratuko dugu, koadrila bakoitza ekintza bakoitzean zenbageren postuan geratu den kontuan hartu gabe.

Ekintza bat osotasunean puntuatzeko gutxiengo lagun talde bat behar da (GLT); horrela ez bada, 15 punturen ordezk 6 puntu eskuratuko dira. Talde mistoak (neskak eta mutilak) hobetsiko dira, eta ekintzako 6 puntu gehiago emango, Skate Jausietan izan ezik (15 puntu gehien goz).

Gaizkiulertuak saihesteko, irizpide bezala pertsona ba-

Puntu gehien eskuratzen dutenek 500 euro irabaziko dituzte

tek koadrila batekoa dela esaten badu, koadrilakotzat joko dugu, beste inolako baldintzarik gabe.

Talde irabazlearen izena abuztuaren 17an jakinaraziko da, mamuen ostean, Musika Plazan.

Eguna	Ekintza	GLT
6, 7, 8, 9	Hondartza Bolei Txapelketa	4
8, 9	Rugby ikastaro eta patxanga	2
10, 19:00etan	Santa Klara xerpa taldea	2
11	Mendi martxa	2
11	Skate Txapelketa	1
13	Ginkama	4
13	Kresalako danborrada	3
14	Amnistia Txaranga	4
14	Pantaloi eta kantzontzilo lasterketa	2
15	Dzanga-dzinga-mutsara	3
16	Atunaren bila	4
16	Kantu txapelketa	4
16	Txosna Olinpiadak	4
16	Playback eta koreografia lehiaketa	4
17	Kukaña	2
17	Antzarretan parte hartzea	2
17	Antzarretako sokari ten egitea	2

Koadrilentzako gaia: OLINPIADAK!

Aurtengo Koadrila Egunaren gaia OLINPIADAK izango da. Gai horren barruan hainbat ikuspegi jorratu daitezke: kirolak, ikurrak eta ikurriak, London, Antzinako Grezia, Giraldira... Gure us-tez gaia nahiko zabala da, koadrila edota taberna ba-koitzak nahi duen erara lan-tzeko. Baina, badaezpada, hemen dituzue adibide ba-tzuk:

- Euskal Selektzioa.
- Aldarrikapenak, baztertu-ta dauden kirolen alde (eus-kal pilota, aizkolariak, soka-tira...).
- USA / URSS, Gerra Hotza, domina lehiaketa.
- Doppinga (Ben Johnson...).

Egun berean, kantu txapelketa egingo da Kafe Atzean



- Maratongo Gudua.
- Mosku 1980 (Estatu Batuen boikota).
- Munich 1972 (Al Fatah-ko komando batek Israeleko 11 atleta bahitu zituen).
- Expo Sevilla 1992 (Giraldira).
- Urdangarin, infanta eta konpainia.

Baina ziur gaude apurtxo bat berbetan hasita bereha-la otuko zaizkizuela zuen ko-adrilarentzat egokiagoak di-ren beste ikuspegi batzuk. Besterik gabe, animatu zai-

tezte eta ea abuztuaren 16an guztion artean olinpiada umoretsu eta herrikiak lan-tzen ditugun.

OHARRA: Olinpiadekin ze-rikusirik ez eduki arren, bai-na bai garai bateko koadri-len ohiturekin, gogoratu bazkal ostean koadrilen ar-teko kantu txapelketa egin-go dugula Kafe Atzean. Be-raz, aukeratu kantu bat eta ea nola prestatzen duzen oholtza gainean harririk ez egiteko. ●

ADIN TXIKIKOEN GURASOENTZAKO OHAR GARRANTZITSUA

Zure semeak edo alabak ekintza hauetakoren batean (**Skate jausiak, umeen kukaña, dzanga-dzinga-mutsara, umeen tirolina, kukaña** edo **antzarrak**) eta bat baino gehiagotan parte hartu nahi badu, baimena sinatu behar duzu. **Hala ez baduzu egiten**, zure semeak edo alabak **ezin izango du** froga horretan **parte hartu**. Baimen bakarrarekin nahi-koa izango da froga baten baino gehiagotan parte hartzeko. Hona hemen eredu-a:


Nik _____ (izena eta bi abizen),
_____ EHNA/NAN zenbakia dudana honek, nire seme/alaba den _____ (r)i

2012ko Andramari jaietan ospatuko diren ekintzetan parte hartzeko baimena ematen diot. Eta hala egiaztatzeko sinatzen dut,

Ondarroan, 2012ko abuztuaren ____ (e)an,


Sinadura: _____

↓ Inkesta >>> Zer kendu, aldatu edo gehituko zenuke jaietan?



Jabier Arrizabalaga

«Jaietan, nahikoa amarratuta egoten naiz Plazagainean. Koadrilarekin abuztuaren 14an edukitzen dudan afaria eta iluntzeetako paseoarekin, pozik. Musikaren atalean, herriko taldeak bultzatu beharko lirateke, aintzakotzat hartu, kanpokoak beste. Orokorrean, ez dut asko kritikatzeko, eta inguruan ere ez dut sumatzen kritikarik».




Eneritz Cereza

«Gure sasoikoentzako kontzertuak bota izan ditut faltan orain arte, talde ezagunenak. Jaiei eskatzen diedan beste gauza bat da herriko talde gehiagok jotzea, herrian piloa daudelako. Ni jaietan lanean egongo naiz, jaietan dabil-tzanei jaten ematen!».




Gotzon Basaras

«Gure sasoian, Koadrila Eguna indartsuagoa zen, adibidez. Baina ezin dut asko kritikatu, ze neu ere kanpoan egon izan naiz azkenengo urteetan. Gaur egun, umeentzako gauzak eskatzen ditut. Iaz, adibidez, oso ondo pasatu nuen kantontzillo karreran. Eta, horrez gain, ea norberarentzako egun bat «jausten» den».



Maitere Etxebarria

«Batzuk zarataz kekatzen dira. Niri, oster, gustatzen zait. Dena ere, bost egun dira, eta jaietan zaratarik ez badago, txarto! Lehena 05:30-06:00ak aldera gitarra eta abarrekien egiten zuten diana bai botatzen dut faltan (parranda eginda hobe zen, gainera), eta buruhandiak, benetako zapladak ematen; eta sokamuturra,...».



Ibon Bergara

«Eskatzen hasita, umeentzako joko gehiago eskatuko nituzke. Bestela, egitaraua bete ia ikusten dut, eta jendeak ere parte hartzen duela. Txosnak egotea ere ondo bilatzen dut nik; bakoitzak bere ideiak espresatzea eta lekua edukitzea. Beste alde batetik, herrian beti daude hirigintza-lanak; eta jaietan ere moldatu egin behar!».

**JAIETAN
ONDO PASA
ETA GANORAZ LIGA!!!**

erantzun!

Indarkeria sexistari aurre egiteko bitarteko ezberdinen
gaineko informazioa eta autodefentsa feministaren
filosofiaz jarduteko aholkularitza.

**INDARKERIA SEXISTARIK
GABEKO GUNEA:**

→ **Abuztuak 13**, 19:00etatik 22:00etara,
Txoznetan (Plaza Musikan)

→ **Abuztuak 16**, 12:00etatik 15:00etara, Alamedan.

→ **Abuztuak 17**, 19:00etatik 22:00etara, Alamedan.

**JAIETAN ZAINDU, GOZATU
ETA ERANTZUN DEZAGUN!**

Abuztuaren 6an, 18:00etan,
kanpai hots biziak entzungo
dira, Antigua aldetik.
Nobenako kanpaiak dira,
andramaixen iragarle ozen.

Antiguako Ama, jai iragarle!

Gaur egun Antigua izenaz ezagutzen den tontorrean Andra Mariaren irudi batentzat baseliza bat eraikitzeak berak frogatzen du nolako zaletasuna zioten lehenengo ondarrutarrek Antiguako Amari. XVIII. gizaldian, abuztuko Andra Mari egunean egun osoko jaia ospatzen zen Antiguan bertan, Antiguako Kofradiaren eskutik, bazkari herrikoietan guzti. Urte batean, Kalagurriko gotzainak debekatu egin zuen, baina Udalak eskatuta, debekua bertan behera geratu zen, eta hurrengo urteetan oraindik ospakizuna Antiguan bertan egiten jarraitu zuten. XX. mendean, hainbat gertaera izan ziren, Antiguako Amarekiko maitasun horren erakusle: Antiguako baselizaren konponketan lanen karietara egin ziren ospakizunak, Antiguako Amaren irudia hornazinan portuko sarreran jartzea (40ko hamarkadan) eta Antiguako eta Begoñako "ahizpek" elkarri Ondarroan egindako bisitaldi ahaztezina (1949-05-09an).

Abuztuaren 6an, 18:00ak inguruan Ondarroara iristen zen edonor harrituta gelditzen zen kanpai hots alai eta luzeak entzutean. Antiguako Nobena zen. Abuztuaren 6tik 14ra arte, Antiguako kanpaiak egunero astintzen eta orpotik ateratzen zuten Ondarroa osoa. 18:00ak aldera hasi eta ordubete irauten zuen etenik gabeko kanpai jotzea, 19:00etan hastekoa zen nobenara deituz. Baselizako dorrean borondatez biltzen ziren




1949-05-09, Antiguako eta Begoñako «ahizpek» prozesioan.

Abuztuaren 6tik 14ra arte, Antiguako kanpaiak egunero astintzen eta orpotik ateratzen zuten Ondarroa osoa.

herritarrek eskuz astintzen ziztuzten kanpaiak, ondarrutar guztioi oso ezagunak zitzaizkien doinuak ateraz. Izan ere, Antiguako Nobena ezinbesteko hitzordua zen ondarrutarrentzat. Kanpoan bizi ziren hainbat herritar ere herriratzen ziren Antiguako Baselizan egin ohi zen Nobenan parte hartzeko. Gaur egun, maila apalagoan bada ere, mantentzen da illuntzeroko kanpai jotze errito bera. Herri-fedearen sinesteetan dago azalpena. Belarriko minak kentzeko sendagaitzat zeukaten. Antiguako Amaren irudiaren aurreko argi-ontztik hartutako olioarekin belarriak igurtzi, kanpai bien erdian burua ipini, hiru Agur Mari erreztatu eta kanpai hotsaren durundia-gaz, akabo minak.

Laborda, Rica eta Segundo Egaña abeslari entzutetsuek ere abestu izan dute nobenan, eta badago pasadizo bat ere. Antiguako Nobena elizkizunari



egunero amaiera ematen ziztaion herritarrek Antiguako Ama maitea ereskeria abestuz. Ondarroako parrokiako organista izan nintzen urteetan (1956/1966) Antiguako Ama Ume Abeslarien taldeko tipleek ere parte hartzen zuten Antiguako Nobenan. Urte batean, *Zuk zer dezu Arantzazu* abestiarren hitzak aldatuz, *Zuk zer dozu Antigua* abestia prestatu eta abestu zuen Tipleen koruak, nobenari amaiera emanaz. *Antiguako Ama maitea* ereserkia abestuz Antiguako Nobenari amaiera emoten ohituta zeuden herritar batzuk asaldatu egin ziren, *Antiguako Ama maitea* betikoa eta ordezkaezin zela ulerturik. Antiguako Amari herritarrek hunkiturik abestu ohi zizkioten abestiak (*Jaungoikoa salba zaitzala, Antiguako Ama maitea, Batelxoak kulunkaz, ...*) izango ziren, ba, egunen baten abesti berriak, ezta?

**ABUZTUAK 1,
EGUAZTENA**

■ **11:00.** Harezko irudien lehia-keta Arrigorri hondartzan. Dzanga Jaixeta. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

**ABUZTUAK 3,
BARIKUA**

■ **19:00.** Amnistia Txaranga-ren entseguak frontoian. Ein Daigun Bidi.

**ABUZTUAK 4,
ZAPATUA**

■ **Egun osoan.** BASERRI AZOKA. Antolatzailea: Lea Artibaiko Landa Garapen Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **12:00.** Elkartasuna hondartzaraino, elkarretaratzea Alamedatik. Ein Daigun Bidi.

**ABUZTUAK 6,
ASTELEHENA**

■ **11:00.** Dzanga ikastaroa Zubi Zaharreko parean. Hiru egunetan. Dzanga Jaixeta. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **18:00.** Bolei Txapelketa Arrigorri hondartzan. Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **19:00.** Kresalako Tanborradako entseguak Kofradia Zaharrean.

■ **19:30.** Txomin Agirreko Tanborradako entseguak Musika

Eskolan.

■ **20:00.** HERRI DANTZAK IKASTAROA andramaixetako: soltean, Larrain Dantza... Kofradia Zaharreko 2. pisuan, Kresala Elkartearen eskutik. (lau egun)

**ABUZTUAK 7,
MARTITZENA**

■ **11:00.** Dzanga ikastaroa Zubi Zaharreko parean. Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **18:00.** Bolei Txapelketako finalak Arrigorri hondartzan. Dzanga Jaixeta. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **19:00.** Kresalako Tanborradako entseguak Kofradia Zaharrean.

■ **19:00.** Amnistia Txaranga-ren entseguak frontoian. Ein Daigun Bidi.

■ **19:30.** Txomin Agirreko Tanborradako entseguak Musika Eskolan.

**ABUZTUAK 8,
EGUAZTENA**

■ **11:00.** Dzanga ikastaroa Zubi Zaharreko parean. Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **18:00.** Bolei Txapelketako finalak Arrigorri hondartzan. Dzanga Jaixeta. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **19:00.** Kresalako Tanborradako entseguak Kofradia Zaharrean.

■ **19:00.** Amnistia Txaranga-

ren entseguak frontoian. Ein Daigun Bidi.

■ **19:30.** Txomin Agirreko Tanborradako entseguak Musika Eskolan.

■ **20:00.** Rugby ikastaroa Arrigorri hondartzan. Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

**ABUZTUAK 9,
EGUENA**

■ **19:00.** Rugby ikastaroa Arrigorri hondartzan. Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **18:00.** Bolei Txapelketako finalak Arrigorri hondartzan. Dzanga Jaixeta. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **19:00.** Kresalako Tanborradako entseguak Kofradia Zaharrean.

■ **19:30.** Txomin Agirreko Tanborradako entseguak Musika Eskolan.

■ **20:00.** Rugbyko Partida Patxanga. Bezperako ikastaroa egitea ezinbestekoa da partida jokatzeko. Dzanga Jaixeta.

**ABUZTUAK 10,
BARIKUA**

■ **San Lorentzo eguna** Asterikan.

■ **19:00.** Kresalako Tanborradako entseguak Kofradia Zaharrean.

■ **19:30.** Txomin Agirreko Tanborradako entseguak Musika Eskolan.

Eneko Torres

• Portuko Ranpi

«Arlanpa berriarekin, iaz egindakoa hobetu egingo dugu»



Eneko Torresek (Ondarroa, 1979) ongi pasatu bako bako gehiago sufritu egingo du skate txapelketa erakustaldian, baten batek mina hartuko duen beldurrez. Iaz bezala, aurretan ere, batzen direnak aho zabalik geldituko dira Portuko Ranpi-koen uretako jausien erakustaldiaz.

Zelan bururatu zitzaizuen skate erakustaldia egitea?

Beste leku batzuetan egiten diren erakustaldien erreferentzia daukagu, eta hango ideiak geurera ekarri ditugu. Helburua jaietan beste gauza bat eskaintzea da, ezberdina, orain arte ikusi bakoa. Iazkoa izan zen lehenengo esperientzia, eta sei lagun batu ginen.

Entsegu barik egiten duzue?

Paper kontu ugari bete behar izaten dira: arriskutsua denez, baimenak eta eskatu behar dira, seguruak egin, Gurutze Gorria ere ekarri behar da, komandantziaren oniritzia lortu, Eta hori dena egun horretara begira egiten dugu, erakustaldia-ren egunerako.

Jendea harrituta geratzen da zuen ikuskizunarekin.

Ni harrituta baino sufritzen egongo naiz egun horretan, baina bai, ikusgarria izaten da. Ondarroa, Mutriku, Deba eta Lekeitioko jendea batzen da ekitaldira, eta ondarrutar asko batzen da ikustera. Askorentzat gauza berria da.

Berritasunik ba al dago aur-tengo ekimenari begira?


Arlanpa berria egingo dugu, iazko ekitaldian ikusi genituen hutsuneak aintzartat hartuta, eta ikuskizun hobe eskainiko dugula uste dugu. Horrez gain, berdin-berdin joango da, eta, ahal bada, kontzertua ere emango dugu zuzenean. Lekeitio eta Bermeoko jendea ere edukiko dugu laguntzen.


Eta gehiago nahi duenak, badaki nora jo.

Lokala daukagu portuan, eta urte guztian hantxe dago aukera skatea hartu eta gurekin ondo pasatzeko!

Helburua jaietan beste gauza bat eskaintzea da, ezberdina, orain arte ikusi bakoa

Lokala daukagu portuan; hantxe ematen dugu aukera skatearekin ibiltzeko





ABUZTUAK 11, ZAPATUA SANTA KLARA EGUNA

■ **08:30.** Kalez kale, HERRIKO TXISTULARIEN KALEJIRA. Ondarroako Udala.

■ **09:00.** NAGUSIENTZAKO MENDI MARTXA: Itsasaurre, Tontorramendi, Gorozika, As-terrika, Santa Klara. Sta. Klara Jai Batzordea + Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **11:00.** UMEENTZAKO MENDI MARTXA: «Antiutik Santa Klara, mazedoniaren bila». Sta. Klara Jai Batzordea + Dzanga Jaixeta Elk. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **12:00.** Kanal arteko moilan, SKATE IKUSKIZUNA ETA JAUSIAK URETARA. Dzanga Jaixeta + Portuko Ranpi. La-

guntzailea: Ondarroako Udala.

■ **12:30.** Santa Klaran, PIN-TXO JANA DOAN. Sta. Klara Jai Batzordea + Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **13:00.** Santa Klaran, HIL-DAKO ARRANTZALEEI OME-NALDIA. Galarrenaren 100. urtemuga. Ondoren, UMEEN JOLASAK. Sta. Klara Jai Batzordea + Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **14:30.** Santa Klaran, BAZKARI HERRIKOIA (10 euro). Ostean, KANTALDIA: Meren kantautoreagaz. Sta. Klara Jai Batzordea + Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **17:00.** Santa Klaran, MUS TXAPELKETA. Sta. Klara Jai Batzordea + Dzanga Jaixe-

ta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **17:00.** UMEENTZAKO BETIKO JOLASAK. Eta sokamutur mekanikoa eta gozoki zaparrada. Sta. Klara Jai Batzordea + Dzanga Jaixeta Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **17:00.** Alamedan, herrien arteko taldekako XAKE AZKAR TXAPELKETA, Xake Taldearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **17:00.** Badian, ESTROPA-DAK: Ondarroako XXVIII. Bander. Ondarroako Arraun Elkarte. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **23:00.** Musika Plazan, KONTZERTUA: Drongeners + Anai-arrebak + The Sparteens. Txosna batzordea + Dzanga Jaixeta Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.



Egitaraua →

ABUZTUAK 12, DOMEKA UMEEN EGUNA

■ **10:00.** Itsasaurren, X. BIZIKLETA GINKAMA. Aurrera Txirrindu taldea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.


■ **11:30.** Itsasurre Plazan, UMEENTZAKO HERRI KIROLAK. Zubi Zahar Herri Ikastola. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **13:00.** Astillerun, UMEENTZAKO KUKAÑA. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **13:30.** Alamedan, Itsasaurren, Kalatraba zubian... GINKAMA! Aurrera F.T. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **16:00.** Plaza Gainean, PLAZA GAINEKO II. MUS TXAPELKETA. Sariak: 1. : 300 euro eta txapelak/2. saria: 150 euro /3. saria: 100 euro

4. saria: 50 euro/ Izena ematea: Plaza Gainean, 15 euro. Antolatzailea: Ezker Abertzai-



lea.

■ **17:00.** Kafe Atzean, BURHANDIEKIN JOLASEAN. Artelanen herensugearekin eta buruhandiekin jolasteko aukera. Ondarroako Udala.

■ **17:00.** Kafe Atzean, UMEENTZAKO TXOKOLATADA. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **18:00.** Kafeatzean, PARDEL LASTERKETA txikienentzat. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **19:00.** Musika Plazan, IRRIEN LAGUNAK:

Kultura Plazara ikuskizuna . Ondarroako Udala.

■ **19:00.** Antiguako Ama Elkartean, LUNTXA JUBILATUENTZAT. Ondarroako Udala.

■ **20:00.** Antiguako Ama Elkartean, DANTZALDIA JUBILATUENTZAT Zirkun taldearekin. Ondarroako Udala.

■ **20:30.** Itsasurre Plazan, TARAS BULBAREN KOSAKOAK Errusiako Ballet Nazionalaren eskutik. Ondarroako Udala.

■ **23:00.** Itsasurre Plazan, jaietako DANTZA EMANALDI berezia, Dantzarteren eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.





Gazte Eguneako antolatzaileak, jaietarako prest. Eskuman, Turubiren jeitsiera. JUAN FERNANDEZ / LORE BENGOTXEA

Gazteak aktibatzeneko premia ikusi dute Gazte Egunaren antolatzaileek. Hartara, Gazte eguna prestatzea ezeze, gazteen aldarrikapenak urte guztian lantzea ere bada aurtengo helburua.

Gazte Egunean,... MOBIU POPI!

Herriko gazte mugimenduko taldeen urteko borroka kaleratzeko eguna, gazteen arteko sarea zabaltzen joateko eguna». Ondarroako hainbat gazte kezku horrekin irten zuten kalera orain zortzi urte, urte guztiko lana andamarietan erakusteko helburuz.

Kamiseta barik irten zuten lehenengo urtean; eta kamiseta barik geratu izan dira hurrengo urteetan, Gazte Egunak hartu duen bultzadaren erakusle. «Kopuruz, ezin zaio gehiagorik eskatu: 700 kamiseta atera eta guztiak erosten dituzte; 500 lagun batzen dira bazkaltzen. Berez-berez saltzen den eguna da», adierazi dute gaur egungo antolatzaileek. Indar hori, baina, ez da erabat aldekoa. «Hain lortu dugu indar handia, ezen gaitz egiten baitzaigu borroka hori herritarren artean plazaratzea».

Askorentzat Gazte Eguna ondo pasatzeko eguna bihurtu dela aitortu dute; egun horretan, askok

ez dutela aparteko ezer gehiago bilatzen.

Aurten, baina, geldialdia egin nahi dute, jatorrizko helburuak gogoratuaz. Eta jendea implikarazi. Inauteri ostean hasitako batzarretan, hiru bloke nagusitan batu zituzten gazteen kezkak: eredu ekonomikoa, gazte harremanak eta drogak. Urte guztian landu beharreko gaiak direla uste dute, baita Gazte Egunean ere.

Arrazoi horregatik, bi lan ildotan dihardute Gazte Egunera begira: Gazte Egunaren beraren antolaketa, batetik; eta gazteen kezkak Gazte Egunean plazaratzeko erak, bestetik. «Adibidez, koadriren arteko jokoak gai horien ingurukoak izango dira. Azken batean, Gazte Egunak jai modura daukan

indarra aprobetxatuko da aldarrikapenak kanpora ateratzeko».


Gazteak aktibatzeneko premia dagoela ikusten dute antolatzaileek. Hortik aurtengo leloa: Mobiu popi! Adinagatik, jende berria sartzen da Gazte Egunaren antolakuntzan; lekuko aldaketa egon badago, hortaz; baina geldika. Gaitza da lanerako jendea bilatzea. 40-50 lagun behar izaten dira bertako egunerako, eta askok gauza bat baino gehiago egiten dituzte. «Bazkaltzera doan jendea ez da konturatzen zelako esfortzua eskatzen duen hau dena antolatzea», adierazi dute.

Urte guztira zabaldu nahi dute mezua, urte guztian mugitu beharra ikusita. «Jendea gauzak egiteko gogoz dago, baina komunikazio faltagatik edo, jaiak ez du hori baino gehiagorako eman izan».

Gazte Egunak harreman horiek lantzen lagun dezan nahi dute. «Gazteen arazoan plazaratzea ez dadila egun bakarrera mugatu». ●

Gazteen kezkak plazaratzeko dira Gazte Egunean, adibidez, jokoan bidez

Egitaraua →



ABUZTUAK 13, ASTELEHENA GAZTE EGUNA

■ **9:00.** Kalez kale, Gazte Egune-ko PREGOIA. Ondarroako Gazteak.

■ **11:00.** Gaztetxean, Gazte egune-ko KAMISETA SALMENTA. Ondarroako Gazteak.

■ **12:00.** Kortxeletik Gaztetxera, TURUBIN JAITSIERA. Ondoren, Txaranteue. Ondarroako Gazteak.


■ **14:30.** Plaza Gainean, GAZTE BAZKARIA. Ondarroako Gazteak.

■ **17:00.** Alde Zaharretik hasita, SOUNDJOKUK: Sound System + Jolasak. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **22:00.** Kalez kale, TANBORRADA Kresala Kultur Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **23:00.** Musika Plazan, Kontzertua: Takuma Sato + Tex & The Soundflowers (japoniarrak) + Willis Drummond. Dzanga Jaixeta + Txosna Batzordearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.





Jai egitarauaren eskaintza zabalaren baitan, txosnena dago; azken urteetan, egunez ere ekimenak antolatzeko apustua egin dute; Plazagainean ere ez dira jaten ematera mugatuko

Txosnak, egunez ere bai

Talde berriekin dator txosnen eskaintza. Es-kilantxarri ur kirol taldeak Eguzkirekin bat egin eta txosna ipiniko du, Musika Plazan. Hantxe egongo dira hiru txosna; eta Kanttoipen, laugarrena: guztira, bost taldek zeresana emango dute jaietan ere.


Eta azken urteetan letxerik, oraingoan ere, jaiez gozatzeko aukera ugari emango dituzte txosnek. «Geure ekarpena egin nahi izaten diegu jaiei», adierazi dute Txosna Batzordekoek. Urte guztian lanean aritu eta askorentzat ezazagun dira txosna jartzen dutenak. Hor daude, ba, andramarietan ere ekimenak antolatzen, kanpora begira, urte guztian lau pareten artean nahikoa denbora eta gehiago egiten dutela eta. Zeresanik ez, txosnetatik lortzen den diruari esker, urte guztian gauzak egiten jarraitu ahal izango dute. Beraz, bide batez, jendeari dei egin diete txandak betetzen lagun diezaieten.

Jaiak esan eta beste zer edo zer pentsa daitekeen arren, burukomin bat baino gehiago ematen diete txosnetakoei, gauza guztiak ondo eta zuzen antolatu ahal izatea ez da-eta gauerdiko ahuntzaren gauerdiko estula. Burukominen artean,

egitaraua eguneko ekimenetara zelan zabaldu. «Jendeak eguneko ekimenak ere antolatzen animatu gintuen; hortik, hainbat ekitaldi etorri dira, tartean, pardel lasterketa eta koadrilen arteko olinpiadak», adierazi dute. Diotenez, ez da erraza gauza berriak egitarauan txertatzeari, «bete-bete eginda egoten baita». Hala ere, egin diote leku ekimen berri bati: monologoa. Barry barrez, Ondarroara itzuleraren izenburupean, Ondarroako barnetegian euskaraz ikasi eta herririk herri saioak eskaintzen diharduen komiko irlandar baten xelebrekeriekin, gozoago joango da Andra Mari eguneko arratsalde-iluntzea.

Bestalde, aurtan, Ein daigun bidei taldearena da preso eta iheslarien aldeko txosnaren arduraz; orain 15 urtetik galduta egon den ekimen bat berreskuratu dute: Amnistia Eguneko txaranga. Egun horretan edonon izan daiteke musiko; erdi-purdiko belarria nahikoa tururtari dale egiteko. Dena dela, aur-

Amnistiaren Egunean berriro irtengo du txaranga, turuta eta instrumentuekin



ten musika instrumentuak jotzen dakitenei ere egin die dei, denen artean kale bazterrak oraindik eta indar handiagoz astindu ditzaten.

Plazagaineak, 29 urte

Txosna batzordetik kanpo baino haien izpiritu beraz, Plazagaineak 29 urte beteko ditu aurtan. «Sei urtean ez dugu preziorik altxatu, atunarenak gora eta gora egin arren, egoera ez dago elako patrikarak husteko moduan», adierazi dute. Bestalde, jaietan ehunka pertsonen bapo bazkaldu eta afaltzeko aukera bermatzeaz gain, kalera begirako ekimenak ere prestatzen dituzte: Mus Txapelketa antolatzeari ekin zioten iaz, arrakastaz ekin ere.

Bestalde, 29 urtek askotarako eman dute, berziklatu beharraz jabetzeko ere bai: aurtan, estreinako, olia berziklatuko dute Plazagainein. Gainera, azken urteetan modura, barrura begira, Plazagaineiko «beterano» bat omenduko dute, eta Jon Maiaren bertsoak zizelkatuta daukazan makila emango.

Eta Plazagainea martxan zelan ipintzen den jakin nahi duenak laster ikusi ahal izango du, youtuben zintzilikatuko duten bideoan. ●



ABUZTUAK 14, MARTITZENA AMNISTIA EGUNA


■ **08:30.** Kalez kale, HERRI-KO TXISTULARIEN KALEJIRA. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **11:00.** Itsasaurre Plazan, FUTBOL 3x3 LEHIAKETA umeentzako. Hiru jokalariko ekiopak. Aurrera FT. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **12:30.** Musika Plazatik, AMNISTIA TXARANGA KALEJIRA. Ein Daigun Bidi.

■ **13:00.** EUSKAL PRESO eta IHESLARIEN ALDEKO BRINDISA Kulixka tabernan. Eta Kalejira Alde Zaharrerantz. Ein Daigun Bidi.

■ **14:45.** Plaza Gainean HERRI BAZKARIA. Ein Daigun



Bidi.

■ **18:00.** Plaza Gainetik, AMNISTIA TXARANGA KALEJIRA Kanttoipera.

■ **18:30.** EUSKAL PRESO eta IHESLARIEN ALDEKO EKITALDIA Kafe Atzean. Ondoren, KANTALDIA. Ein Daigun Bidi.

■ **18:45.** Antiguan, SALBEA.

■ **21:30.** Kalez kale, TANBORRADA. Txomin Agirre Elkar-tearen eskutik. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **00:00.** Musika plazan,




KORTXELEKO MAMUEN JAITSIERA Kresala Kultur Elkar-tearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **00:30.** Musika plazan, IKURRINAREN IGOERA Udal korporazioaren eskutik. Ondoren, KORTXELEKO MAMUEN KALEJIRA Kofradia Zaharrraino.

■ **01:00.** Kalez kale AMNISTIA REN ALDEKO MANIFESTAZIOA Zubi Zaharretik.

■ **02:00.** Kafeatzean, KON-TZERTUA: DEUS EZ + KATE-KESISE. Dzanga Jaixeta + Txosna Batzordearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **04:00.** Zubiaurre anaiak kaletik Musika Plazara, PANTALOI ETA KANTZONTZILLO LASTERKETA. Dzanga Jaixeta Elkar-tea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.



Egitaraua →

ABUZTUAK 15, EGUAZTENA ANDRA MARI EGUNA

■ **10:30.** Kalez kale, TXISTU-LARIEN KALEJIRA. Antolatzaila: Ondarroako Udal.


■ **12:00-14:00/17:30-**

20:30. Itsasaurren UMEENTZAKO PARKEA (Eurria eginez gero, kiroldegian). Ondarroako Udal.

■ **13:00.** Itsasurre Plazan, 48. ONDARROAKO OHOREZKO AURRESKUA. Luis Etxaburu *Latxanbredantzarria* eta Karmelo Bilbao txistularia.

■ **13:30.** Itsasurre Plazan, MUTRIKUKO BANDAREN KONTZERTUA. Antolatzaila: Ondarroako Udal.

■ **16:00.** Zubi Zahar aurrean, UR JOLASAK: DZINGA-DZINGA- MUTSARA. Uretako frogak konbinatua da. Zubi Zaharretik dzanga egin, dzingan Gaztetxe pareraino joan, zia-boga eta kukaña pareraino itzuli, mutsaran erria zeharkatzeko. Gutxienez hiru lagun. Lasterketa bat da, bonifikazioekin: dzanganen lortutako puntu bakoitzeko (10 gehie-



nez) bost segundoko bonifikazioa eta mutsaran egindako metro bakoitzeko 3 segundoko bonifikazioa. Egindako denborari bonifikazioetan lortutako segundoak kenduz, bizkorrenak irabaziko du. Saria: 300 euro. Dzanga Jaixeta Elkartearen eskutik. Laguntzaila: Ondarroako Udal.

■ **17:00.** Frontoian, Ondarroako gaztetxoan eta gazte-aren arteko ESKU PELOTA PARTIDUAK, Markinako Esku Pilotaren eskutik. Ondoren partida printzipala: Imanol Agirre-Pero Sanz / Rober Uriarte-Lasa III. Ondarroako Udal.

■ **18:00.** Kalez kale, KALE ANIMAZIOA Artelanen erraldoiak eta buruhandiak. Antolatzaila: Artelan Kaiondo.

■ **18:00.** Kafe Atzean, EL-KARTASUN BINGOA. Ein Dai-gun Bidi.


■ **18:00.** Zubi Zaharretik, TIROLINA UMEENTZAKO. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzaila: Ondarroako Udal.

■ **19:00.** Musika Eskolatik Itsasaurrera, ANDRABANDA FEMINISTA. Laguntzaila: Ondarroako Udal. ■ **20:30.** Musika Plazan, MONOLOGOA: "Barry barrez, Ondarroara itzulera". Txosna Batzordea.

■ **22:30.** Gaztetxean, KONTZERTUA. OGA.

■ **23:00.** Arrigorri hondartzatik, SU ARTIFIZIALAK: As-tondoa Piroteknia. Ondarroako Udal.

■ **23:30.** Itsasurre plazan, KONTZERTUA: Patxi Saiz eta Petti. Ondarroako Udal.



Jabier Urresti

• Mutriku Sokatira Tald.

«Plazan probatzeko lehenengo aukera izaten da hasi berrientzat»

Laster beteko dira 25 urte Mutriku Sokatira Taldeak Koadrila Eguneko herri kirolen saioa antolatzen duenetik, eta hortik ia ia denetan egon da Jabier Urresti (Ondarroa, 19637). Bertsokak eta herri kirolak batuta, ikusleei gozamen ederra eskaintzen zaie.

Frontoia bete-bete egiten duzue Koadrila Egunean.

Jendeak oso ondo erantzuten dio ikuskizunari, eta gozatu egiten dute. Koadrila Egunean, ohitura handia hartu du, nahiz eta propio Koadrila Egunaren giroarekin lotura zuzenik ez izan.

Zer helbururekin prestatzen duzue ekimena?

Iparraldeko jokoak erakutsi nahi izaten ditugu, guk normalean egiten ez ditugunak, eta gutxi ikusitakoak; nobedadeak. Taldean hasten den jendearentzat plaza irten eta probatzeko lehenengo aukera izaten da.

Orain bi-hiru urtetik hona, barriro neskek dauzkagu taldean



Bertsolariak sartzeak bereiztasuna ematen dio ekimenari, ezta?

Bertsolariak sartzea erabaki genuen, herri kirolak monotonegiak ez izateko, eta jendearen erantzunaren arabera, helburua lortu dugu.

Aurten zeintzuk bertsolari datoz?

Iratxe Ibarra, Jon Maia eta Arkaitz Estiballes. Aurten, beste gauza bat probatu nahi dugu eurekin. Orain arte, horrela banatu izan ditugu paperak: bat epailea izan da; beste bat berriatuarren *entrenatzailea* eta hiru garrena, mutrikuarrena. Aurten, jokoan elementuen

paperean sartu beharko dira. Ea ze joko ematen duten...

Emakumerik ikusiko al dugu frontoian lanean?

Orioko Idoia Etxebarria harri-jasotzaileak parte hartuko du, eta taldean dauzkagun neskek ere bai.

Zelan dago emakumeen parte hartzea Mutriku Sokatira taldean?

1998ra arte, neska taldea egon zen. Urte batzuetan neska barik egon gara, eta orain bi-hiru urtetik hona, nesken parte hartzearen inguruan zegoen kezka irerantzunda, berriro bultzada eman eta neska birek ere parte hartzen dute. ●

ABUZTUAK 16, EGUENA KOADRILA EGUNA

■ **10:00.** Alamedan, MARMITAKO LEHIAKETA. Arra-nondo Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **10:30.** Kalez kale, HERRIKO TXISTULARIEN KALEJIRA. Ondarroako Udala.

■ **12:00-14:00/17:30-20:30.** Itsasaurren UME-ENTZAKO PARKEA (Euria eginez gero, kiroldegian). Ondarroako Udala.

■ **12:00.** Kafeatzean, KOADRILEN ARTEKO JOKOA: ATUNAREN BILA. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **15:00.** Kafeatzean, KOADRILEN BAZKARIA. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **16:30.** Kafeatzean, «KOADRILAK KANTARI».



Txosna Batzordea.

(Oharra: Euririk balego, Atunaren bila lehiaketa, Koadrilen bazkaria eta "Koadrilak kantari", karpan egingo dira.)

■ **17:30.** Kafeatzean eta Musika Plazan, TXOSNEN ETA KOADRILEN ARTEKO OLINPIADAK. Txosnak.


■ **18:00.** Frontoian, HERRI

KIROLAK: Mutriku Herri Kiro-lak taldea + Iratxe Ibarra, Jon Maia eta Arkaitz Estiballes bertsolariak. Ondarroako Udala.

■ **20:00.** Alde Zaharrean, KALE DISKOTEKA. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **22:00.** Musika Plazan, PLAY-BACK eta KOREOGRAFIA LEHIAKETAK. Dzanga Jaixeta Elkartea. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **00:00.** Itsasaurre Plazan, KONTZERTUA: Doctor Deseo. Ondarroako Udala.



Atako Bandan, arrantzaleen borroka

ONDARROAKO HISTORIA ZALEAK

Sasoi batetik beherakoentzat, Arrantzale Eguna beti-betiko kontua da; egun seinatua.

Arrantzale Egunean, gainera, ikuskizun berezi baten lekuko ere izan ohi dira ondarrutarrek:

Atako bandan. Hurrengo hileak are bereziago izango dira, 70. hamarkadan Euskal Herrian barrena ibili zen ikuskizuna martxan dago eta.

Imaginatzen dituzu Andra Mari jaiak Arrantzale Eguna barik? Ba, 1957. urtean ospatu zen lehen Arrantzale Eguna, Aurre-ra KE elkartearen eskutik.

Zorionak eta eskerrik beroenak ondarrutar guztion partez, zuri, Juanito Balentziaga Osari. Garai hartan, Aurrera KE lehendakari eta Arrantzale Egunaren asmatzaile izanaz gain, jai horren bihotz-arima nekazina izan zara-eta urte askotan.

Gure Ondarroa itsasoari begira sortu zen. Geroztik, itsasoa izan da mendez mende ondarrutarron ogibide eta borrokatoki. Itsasotik iritsi izan jakuz poza eta negarra.

Aurtengo Arrantzale Egunean, gure algara, dantza eta jolas artean, izango dugu tokitxo bat, ezta, 1937ko neguan Ondarroa Arrantza Herria hunkituta utzi zuten itsasoko ezbehar larri bi gogoratzeko?

Negu hartan be, barriro be gauzatu zen Ondarroako arrasteko arrantzaleen artean Bizia-gatik bizia arriskatzun dugu aspaldiko esaldia.

Izan ere, 1937ko neguan, itsasoaren denborale gogor baten ondorioz, aita batek bere begiekin ikusi zuen 16 urteko semea olatu artean urperatzen eta galtzen. Aita semerik barik geratu zen, erdi zoraturik.

Gertaera mingarri bitan oinarriturik, Xabier Letek ATA KO BANDAN Poema idatzi eta Ondarroako Herriari eskaini zigan.



Handik hilebetera, beste itsas amorratu batek betirako irentsi zuen arrasteko arrantzale bat, semea arantza-ontzik begira zuela ezintasun larrienean.

Gertaera mingarri bi haue-tan oinarriturik, Xabier Lete euskal olerkariak ATA KO BANDAN Arrantza Poema idatzi eta eskaini zigan Ondarroako Arrantza Herriari.

Gotzon Aulestia Txakartegi ondarrutar musikariak musika jarri ondoren, hurrengo urteetan Kresala elkartearen bildutako 100 lagunek eskaini genuen ATA KO BANDAN Arrantzaleen Burruka ikuskizuna Euskal Herriko hainbat tokitan.

Datorren neguan 50. urteurrena izango denez, Ondarroako kultur arloko hainbat elkar-te eta norbanako elkartu eta Herri Batzorde zabal eta irekia osatu dute.

ATA KO BANDAN ikuskizunaren bertsio eguneratua 2013. urtean eskaintzea da euren asmoa. Hartara, aspaldi ari dira prestatzen lanetan.

Guztira, 130 herritar inguru aurreikusten dira proiektuaren parte hartze zuzenean. Kantariak (Kantaize abesbatza, Unanue Kamara Korala, bakarlariak,...) musikariak (soka, metala, egurra, perkusioa, txistulariak, jazz hirukotea), dantzariak (Kresala taldea), antzerkia (Pello Aramaio eta herritarrak), irudigilea (Juan Bidegain), narratzailea eta idazlea (Kirmen Uribe), argi teknikaria (Oier Bengoetxea-PCs decolores enpresa), soinu Teknikaria (Angel Gonzalez Katarain-Tx audiovisuales enpresa), musikari laguntzaileak,... Talde zabala lanerako prest! ●

ABUZTUAK 17, BARIKUA ARRANTZALE EGUNA

■ **10:30.** Kalez kale, HERRIKO TXISTULARIEN KALEJIRA. Ondarroako Udala.

■ **12:00.** Kalez kale, KALE ANIMAZIOA Artelanen erraldiak eta hankapaloak. Artelan Kaiondoren eskutik. Laguntzailea: Ondarroako Udala.

■ **13:00.** Alamedan eta Alde Zaharrean. BERTSO SAIOAK: Amets Arzallus eta Unai Iturriaga. Bertsutan Taldearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **13:00.** Kalez kale, «ATAKO BANDAN» DANTZA SAIOA. Kresala Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **13:00.** Alamedatik, EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO MANIFESTAZIOA.

■ **16:30.** Zubi Zaharrean, DANTZA AEREOA. Allarte Kultur Elkartea.

■ **16:45.** Zubi Zaharraren aurrean, KUKAÑA. Dzanga Jaixe-

ta Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **17:30.** Zubi Zaharraren aurrean, ANTZARRAK. Dzanga Jaixeta Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **18:30.** Kalez kale, BENTAZAHARREKO NESKA-MUTIKO ALAIAK. Betiko Euskal Kantak. Dzanga Jaixeta. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **20:00.** Alde zaharrean, EUSKAL ERROMERIA Kresala Kultur Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.


■ **20:30.** Kafe Atzean, ERROMERIA: Jokaldi. Dzanga Jaixeta Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **23:20.** Zubi Zaharretik,

KORTXELEKO MAMUEN KALEJIRA Kresala Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **00:00.** Musika plazan, KORTXELEKO MAMUEN IGOERA. Kresala Kultur Elkartearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.

■ **00:45.** Musika Plazan, KONTZERTUA: Itaka Band + EmePebo5t. Dzanga Jaixeta + Txosna Batzordearen eskutik. Antolatzailea: Ondarroako Udala.



↓ **lazko andramaixetako argazkiak!**

ARGAZKIAK: JUAN FERNANDEZ EGIGUREN

